

## **KONTROL MOZIOA**

### **ETXERIK GABEKO ADINGABEAK KALE EGOERAN UZTEAREN INGURUAN**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2019ko uztailaren 15ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Ekainaren 5ean dei bat jaso genuen Donostiako Harrera Saretik, Abegi Etxean zegoen familia baten egoeraren berri emanez. Dirudienez, lau pertsona errefuxiatuz osatutako familia bat zen, bi adingabe barne. Familia lau egunez egon zen Abegi Etxean baina plazarik gabe gelditu behar zirela adierazi zieten, kale egoeran geldituz.

Harrera Saretik egoeraren berri eman ziguten irtenbide bat bilatzeko helburuarekin eta egun berean Gizarte-ekintzako delegatuarekin hitz egin genuen familiaren egonaldia Abegi Etxean luzatzeko, CEAR-eko baliabide batera sartu arte.

Jakin izan dugu, egoera hau ez dela berria eta behin baino gehiagotan uzten direla familiak kale egoeran, nahiz eta adingabeak egon tartean, pertsona hauen harrera hirugarren sektoreko eragileetan delegatuz.

3/2005 legerari (otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa) erreparatzen badiogu, 50. artikuluan honako hau aipatzen du:

*50. artikulua – Agintarien eta herritarren betebeharrak.*

1. – *Bai agintariek eta zerbitzu publikoek bai herritarrek, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko haur edo nerabe bat arrisku edo babesgabezia egoera batean egon daitekeela ikusten dutenek, haur edo nerabeari laguntza berehala eskaintzeko betebeharrak dute, eta, beren eskumenean badago, jarduteko, edo bestela, eskumena duten agintariei edo haien agente gertukoenei jakinarazteko; orobat, adingabearen legezko ordezkariak jakinarazi behar dizkiete egitateak, edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari ere bai.*

Hortaz, argi dago, zerbitzu publikoek ezin dutela babesgabezia egoerarik eragin adingabeak kale egoeran utziz, nahiz eta haiei bideratutako baliabideak beteta egon.

Gizarte-ekintzako delegatua interpelatzerakoan, adierazi digu egia dela horrelako egoerak gertatzen direla eta zerbitzuak beteta daudenean beste aukera batzuk erabili behar direla, esate baterako: hotelak, emergentziazko pisuak, etab.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

## **KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari idatziz zehaztu dezala zein den kale egoeran dauden familiekin beteko den interbentzio prozedura, adingabeak kale egoeran gelditzea ekiditeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari prozedura hori parteka dezala Gizarte-ekintzako kontseiluan parte hartzen duten eragileekin zein Donostiako Harrera Sareko ordezkariekin.

Donostian, 2019ko uztailaren 18an

Olaia Duarte López  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia